

Zubiaren bestaldean segurtasuna

25 urteko borrokaren ostean, Tamil Aberriaren Askapenerako Tigreak taldeak armak utzi berri ditu, Sri Lankako armadak garaiturik eta sakoneko arazoa konpondu barik. Azken asteetan zibil andana hil ditu armadak, eta ondorioz, are okerragoa da Sri Lankako ipar-mendebaldean bizi diren tamilen (hiru milioi inguru) egoera. Indiako Tamil Nadu-ko etnia honek Sri Lankan duen errefuxiatu-kanpamentu batean izan zen Robert Scarcia duela aste gutxi; hona haren bizipena.

ROBERT SCARCIA

MILAKA ETA MILAKA tamil daude zuzenean edo zeharka preso Sri Lankako Mahinda Rajapaska lehendakariaren indar armatuen eta Tigre Tamilen azken berunezko orro lehergarrien arteko tiro gurutzatuen ondorioz. Gehiengo sinhal hiztuna duen irla-estatuan hainbat hamarkadaz Tamil Eelam (Tamil Estatua) eratzeko borrokan dabiltzan gerrillari independentista hauek dagoeneko ez dira garai batean zirena, munduko ezkutuko erakunde politiko-militar eraginkorrenetakoa, alegia.

Tigreak izan ziren lehergailuz betetako txaleko ezaguna asmatu zutenak, eta arma hori planetako beste lekuetara esportatzeak globalizatu egin du talde suizidaren irudia. Tragikoki, baina, hartutako erabaki gogorraren adierazgarri den tresna horrek berak ekarri zuen Tamil Eelamaren amets independentistaren bukaeraren hasiera, ondoan dagoen Indian esaten dutenez amets hori momia egiptoarrak bezain bizirik baitago.

1991ko maiatzean, Indiako Chennai metropolitik gertu dagoen herri batean, txaleko hilgarria jantzita zuela, Dhanu ezizenez ezagutzen zen emakume Tigre Tamilak lehergailua aktibatu eta berekin eraman zuen Rajiv Gandhi, Indiako lehen ministro, Indiarren seme eta Nehruren biloba zena. Batzuek diote garai hartan New Delhitik Sri Lankara bidalitako bake-indarretako militarrek emakume tamilei egindako bortxaketen mendekua izan zela atentatua. Tigreek bar-

kamena eskatu zutela ere esaten dute. Baina munduko demokraziarik populatueneren historia hain nabarmen markatu duen dinastia politikoko ondorengoaren erailketak ezin zuen zigorrak gabe gelditu, eta Rajiv Gandhi hil zenetik, India izan da Tigre Tamilak “erakunde terroristatzat” jotzeko eta ondorioz mundu osoan gogor tratatuak izateko borrokaren buruan egon den herrialdea.

Sri Lankako tamil gehienentzat, segurtasuna Ramako zubitik mendebaldera dago, irla-estatuaren eta kontinente indiarraren artean,

Palk-eko itsasartean, koral eta hondar bankuz osatutako katean; eta izen konposatua du: Tamil Nadu. Horixe da Indiako batasun federalean hego-ekialdeeneko estatua, tamil hizkuntza eta kulturaren sehaska zaharra.

Ramako zubia gurutzatzea lortzen duten errefuxiatuak handik gertu dagoen pasaerako kanpamentu batean jasotzen dituzte, Indiako agintarien kontrolpean dagoen Mandapam-en, eta gero Tamil Nadun barrena sakabanatuta dauden beste kanpamentuetara bidaltzen dituzte, gizarteratzeko. Kanpamentu horiek bat-batean azaltzen dira eskualdeko geografia menditarreko tamarindo, kokondo eta arroz soroen artean. Adreilu eta lokatz zanpatuz eta margotuz eginak dira batzuk, eta lastozko teilatu eta egurrez eginak besteak; lerro paralelotan eraikitzen dituzte. Ur tanga bat dago eta horixe da denentzat ur putzu bakarra; tartekatareka ikus daitezkeen osasun etxeek adieraz-

**Kanpamentuko liderrak uste du
tamilenganako diskriminazio
historikoa ez dela desagertuko
nazioarteko komunitatearen
laguntzarik gabe**



Irudietan, errefuxiatu-kanpamentua, tartean bertako eskola.



ten dute India eta Europako GKEen eskuza-baltasuna. Ume argal eta oinutsak jolasean dabilta, alde batetik umeen poz espontaneoak erakusten dutelarik eta, bestetik, iragan kolonial britainiarra gogora ekartzen duten eskola-uniformeekin diziplina militarra iradokiz.

Indiako tamilen laguntzaz

Errefuxiatuak bisitatzeko, aurrena bertakoek aukeratzen duten kanpamentuko liderraren baimena behar izaten da. Liderrak bularra agerian eta hankak gurutzatuta dituela hartu nau, eta baso bat ur eskaini dit, atzerritarrak etxera etortzen direnean Tamil Nadun egin ohi duten bezala. Aitortu dit Indiako agintariek errefuxiatuei laguntza txikia ematen dieten arren —ordainsari bakarria familia bakoitzari—, laguntza hori nekez jasoko luketela Indiako tamilek hizkuntza, kultura eta erlijio berbera duten Sri Lankako neba-arrebekiko erakusten duten elkertasunik gabe. Sri Lankan geratu diren senitartekoein komunikatzeko modu bakarria telefono mugikorrak erabiltzea dela esan dit, “baina Colombo Sri Lankako hiriburuaren erabateko gerra-politika hasi zenetik, komunikazioak zailagoak dira eta jasotzen ditugun berri eskasak txarrak izaten dira”. Atzean, gatazkaren erdian gelditu diren senitartekoei giza-ezkutuen bizimodua egitea egokitu zaie, eta albo-kalte ez bihurtzea espero dute. Gauza batek eman dit atentzioa: kanpamentuko agintaria tamileratik ingelese-ra pasatu da gatazketako gerra egileek gerrako preso zibilei buruz hitz egiteko orain erabiltzen dituzten hitz leungarri edo eufemismo horiek aipatzeko. “*Human shields*” eta “*collateral damage*” dagoeneko ohiko bihurtu diren hizkuntz maileguak dira, errefuxiatuen aurpegiak, gerrek eragindako sufrimenduaren lehen planoko benetako argazkiak ezkutatzen dituzten hitz globalak. Liderra ezkorra da eta kezkatuta dago kanpamentuko gazteekin. Nazioarteko komunitateak esku hartzen ez badu, ez du uste Sri Lankako tamilenganako



diskriminazio historikoa desagertzea lortuko denik. “Gazteek ikasteko aukera daukate, baina gero *coolie* edo soroetako jornalari, edo eraikuntzako peoi gaizki ordaindu gisa besterik ezin dute lan egin”.

Neska-mutiko talde bat errezeloz baina isilik begira ari zait. Lema adierazgarri hau daraman kamiseta non aurkitu duen galdetu diot bati: “*Good girls go to Heaven, bad girls go everywhere*” (neska zintzoak zerura joaten dira, gaiztoak edonora). Mutikoak, kamiseta erosi zuenean ingelesik ez zekiela esan dit eta lagun taldea algaraka hasi da. Horrela urtu dugu izotzaldia. Gazteek beraien proiektu profesionalen eta pertsonalen berri eman didate: batek informatikako ingeniaria izan nahi du, besteak abokatua, beste batek irakaslea; beste batek, aldiz, maitasunez ezkondu nahi du “eta ez familiek tratua egin dutelako”. Inguruan duten kultur testuinguruan normalak dira horrelako ametsak. Sorlekuak bizi duen tragediaren aurrean, inpotentzia sentitzen dute eta etsita daude.

Atentzioa ematen duen beste kontu bat: Ramako zubia Adanen zubia izenarekin eza-gutzen da. Elezahar islamdar batek kontatzen duenez, lehenengo gizonak zubi hori gurutzatu zuen Sri Lankako mendi batera iristeko, eta hantxe geratu zen mila urtez penitentzia egiten. Mila urteko penitentzia seinale txarra da gatazka batean preso dagoen herriarentzat. ■